

ZENBAIT LIBURUEN BERRI

MANEX GOIHENETXE

MICHEL ROUCHE: *L'AQUITAINE, 418-781, NAISSANCE D'UNE REGION.*

Paris, Jean Touzot, 1979.

Lille-ko Unibertsitatean erakasle da M. Rouche. Tesisa bikain honetan Bidasoaz iparraldeko Baskoinetaz eta Baskoniaz lan egin du, Karolingiarrek baztertu eta isildu zuten lau mendeetako Baskoien historia eta gizartea ikertuz.

RENEE MUSSOT-GOULARD: *LES PRINCES DE GASCOGNE, 768-1.070.*

Paris, C.T.R., 1982.

Gaskoin ikerlari hau aldiz Sorbonako Unibertsitatean da erakasle. M. Rouche-ren segida hartuz, erauts petik ateratu ditu Karolingiarren historiografia ofizialak isilean gorde zituen Baskoiniako Printzeen «gesta», «historia» etabar, 25 kartulario (cartulaire) idazkien ikerketa kritikoa egin ondoren. Argi eta garbi erakusten digu IX-XI mendeetan eraikia izan zen Baskoniako «*principatus*» deitu erreina, edo printzipe-herria egitura sozio-politikoak, Nafaroarekilako harreman zehatzak. Ez ahantz, oraindik IX. garren mendean, gaurregun Landesetako departamenduan den St-Sever hiria, «*caput Vasconiae*» deitua zela.

LOUIS ASSIER-ANDRIEU: *COUTUME ET RAPPORTS SOCIAUX. ETUDE ANTHROPOLOGIQUE DES COMMUNAUTES PAYSANES DU CAPCIR.*

Paris, C.N.R.S., 1981.

Ipar Katalunian dagoen CAPCIR eskualdearen antropologia historiko mardula eskaintzen digu liburu honetan C.N.R.S.eko ikerlari honek. Pirineo inguruko herrien arteko antzekotasuna ezaguna da; sozio-ekonomiko egituren ezagutza antropologikoa eta aldeketako historikoa erraberritu duela Assier-Andrieu-k erran behar da.

MAURICE BERTHE: *FAMINES ET EPIDEMIES DANS LES CAMPAGNES NAVARRAISES A LA FIN DU MOYEN-AGE.*

Paris, S.F.I.E.D., 1984.

Toulouse-ko unibertsitatean aurkeztu zuen tesisaren argitalpena da. XIII-XIV. mendeko zerga idazki guziak ikertuz Nafarroako baserritar gizarteko egituren ezagutza erraberritu du, hoin guti ezagunak diren Erdi Haroko baserritar «pexero» edo «petzero» nekazarien ezin bizia hurbiletik ikertuz.

CHRISTIAN DESPLAT: *CHARIVARIS EN GASCOGNE.*

Paris, Nancy Berger-Levrault 1982.

Pau-eko Unibertsitatean erakasle den ikerlari honek XVI-XX menderarte jendek jasan edo adierazi duten mentalitatea eta pentsaera ikertzen du, Euskaldunen, Biarnesen eta Gaskoinen ohidurak eta kultur bideak parekatuz.